

18/25 PRENTSA OHARRA

ALDAKETAK DBUSEN ZERBITZUAN LILATOIA DELA-ETA

Datorren igandean, otsailak 23, Lilatoia dela eta, **7:00etatik 13:00etara** gutxi gorabehera Erdialdeko eta Groseko hainbat kale moztuko dira eta ondorengo aldaketak egingo dira Dbusen zerbitzuetan.

• 5.BENTA-BERRI, 16.IGELDO, 18.SEMINARIOA eta 25.BENTABERRI-AÑORGA:

7:00etatik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera

Bukaerako geldialda **Okendo kalean** egingo dute. Gipuzkoa Plazako geltokia eta Boulevardekoa kenduko dira.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera. Ibilbide bukaerako geldialdiak ondorengoak izango dira:

5L: **San Martin kaleko 52an**, Auzitegiaren aurrean.

16L-18L: **Manterola eta San Martin arteko izkinan**.

25L: **San Martin 54**.

Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokiak, Okendoko 5ekoak, Gipuzkoa Plazakoak, Boulevard 17koak, Boulevard 19koak, Urbieta 6koak eta Urbieta 20koak ez dute zerbitzurik izango.

• 19.AIETE-BERA BERA:

9:20tik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera

Bukaerako geldialdia **Okendo kalean** egingo du. Gipuzkoa Plazako geltokia kenduko da.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

Bukaerako geldialdia **Lizarra kaleko 2an** egingo du. Marianistetako geltokia, Easo 19koa, Okendokoa, Gipuzkoa Plazakoa, Urbieta 6koa eta Larramendikoa kenduko dira.

• 21.MUTUALITATEAK-ANOETA, 26.AMARA-MARTUTENE eta 28.AMARA-OSPITALEAK:

7:00etatik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera

Bukaerako geldialdia **Okendo kalean** egingo dute. Boulevard 9ko eta Boulevard 13ko geltokiak kenduko dira.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

- Erdialderantz: ohiko ibilbidea egingo dute Santa Katalina Zubiraino iritsiko dira, han bukaerako geldialdia eginda. Okendoko geltokia, Boulevard 9koa eta Boulevard 13koa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira eta Foru pasealekura** eramango dira.

- Amara alderantz: **Santa Katalina Zubitik** aurrera, Frantzia pasealekutik, F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik jarraituko dute, Zuaznabar (geldialdia behin-behineko postean). Pio XIIan ohiko ibilbideak berreskuratuko dituzte. Boulevard 9ko geltokia, Boulevard 13koa, Urbieta 6koa, Urbieta 12koa, Urbieta 58koa, Mendeurrenekoa, Antso Jakituna 12koa, Antso Jakituna 28koa, Errondo 3 eta Errondo-Morlansekoa kenduko dira.

• **23.ERRONDO-PUIO eta 32.PUIO-ERRONDO:**

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

Bukaerako geldialdia Errondo 3an egingo dute (21 linearen geltokia). Easo Plazako geltokia, Urbieta 38koa eta Mendeurrenekoa kenduko dira.

• **8.GROS-INTXAURRONDO:**

9:30etik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera:

Ohiko ibilbidea egingo du Okendo kaleraino eta Idiakez kalean egingo du bukaerako geldialdia. Boulevard 15ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidea 15ekoa kenduko dira.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

Mirakruz 14an egingo du bukaerako geldialdia. Hortik 31 linearen geldialdiak egingo ditu, Jaialairaino, eta han ohiko ibilbideari ekingo dio. Boulevard 15ko geltokia, Askatasunaren Hiribidea 19koa, Iparragirrekoa, Zurriolakoa, Groseko Anbulatoriokoa eta Nafarroa Hiribidea 34koa kenduko dira, eta Mirakruz kalean egingo ditu geldialdiak (31 linearen geltokiak)

• **29.HEGO INTXAURRONDO SUR:**

9:30etik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera:

Idiakez kalean egingo du bukaerako geldialdia. Kursaaaleko geltokia, Boulevard 15ekoa eta Askatasunaren Hiribidea 15ekoa kenduko dira.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

Pinudi-Mirakruzen bukaerako geldialdia egingo du. Kursaaaleko geltokia, Boulevard 15ekoa eta Askatasunaren Hiribidea 15eko kenduko dira.

• **9.EGIA-INTXAURRONDO:**

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

Santa Katalina Zubian bukaerako geldialdia egingo du. Euskadi Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidea 6koa, Okendo 18koa eta Askatasunaren Hiribidea 15koa kenduko dira.

• **13.ALTZA:**

7:00etatik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera

Bukaerako geldialdia **Idiakez kalean**. Kursaaaleko geltokia, Boulevard 3koa eta Askatasunaren Hiribidea 21koa kenduko dira.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

Mirakruzen egingo du bukaerako geldialdia. Jesuitetako geltokia, Mariaren Bihotzekoa, Kursaaalekoa, Boulevard 3koa eta Askatasunaren Hiribidea 21koa kenduko dira.

• **14.BIDEBIETA:**

9:30etik 10:10era eta 11:15etik 13.00etara gutxi gorabehera

Galtzada Nagusitik aurrera, Colón pasealekutik jarraituko du Gipuzkoa Plazara iristeko. Kursaaaleko geltokia kenduko da eta **Colónera** eramango da.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

Mirakruzen egingo du bukaerako geldialdia. Kursaaaleko geltokia, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidea 7koa kenduko dira.

• **17.GROS-AMARA-MIRAMON:**

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

-Gros alderantz: Mirakruz kaletik joango da, eta 29 linearen geldialdiak egingo ditu Fernando Sasiain-eraino. Iparragirreko geltokia, Zurriolakoa, Groseko Anbulatoriokoa eta Nafarroa Hiribidea 34koa kenduko dira, eta **Mirakruz kalean** geldialdiak egingo ditu (29 linearen geldialdiak)

- Amara alderantz: Iparreko Geltokitik aurrera F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabarretik (geldialdia behin-behineko postean) jarraituko du, eta Pio XII-n ohiko ibilbidea berreskuratuko du. Bilbo Plazako geltokia, Mendeurrenekoa eta Antso Jakituna 28koa kenduko dira.

• **24.ALTZA-GROS-ANTIGUO:**

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

- Antiguo alderantz: Ategorrieta Hiribidetik, Galtzada Nagusitik eta Colón pasealekutik jarraituko du; Iparreko Geltokitik aurrera, F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabarretik jarraituko du, eta Pio XII.eko geltokian irteteko eta handik aurrera ohiko ibilbidea egiteko. Nafarroa Hiribideko geltokiak kenduko dira, eta **Ategorrieta 41ean eta Galtzada Nagusian** egingo dira geldialdiak. Bilbo Plazako eta Mendeurreneko geltokiak **Iparreko Geltokira edo Pio XII.era** eramango dira.

•31.INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA:

9:30etik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera

- Aiete alderantz: Lapurdi Plazatik aurrera, Colón pasealekutik jarraituko du **Gipuzkoa Plazara** iristeko (14 linearen geltokian). Ondoren, Askatasunaren Hiribidetik joango da, eta Urbieta kaletik, eta gero ohiko ibilbidea egingo du.

Jesuitetako geltokia, Mariaren Bihotzekoa, Kursaaalekoa eta Boulevard 15ekoa kenduko dira, eta **Jaialain, Galtzada Nagusian, Colón pasealekuan eta Gipuzkoa Plazan** (14 linearen geltokia) geldialdiak egingo dira.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

- Aiete alderantz, Intxaurrondotik aurrera, Ategorrieta Hiribidetik, Galtzada Nagusitik jarraituko du, Colón pasealekutik, Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik, Lehendakari Agirre Zubitik eta Zuaznabarretik. Gero, aurrera egingo du eta zuzenean Pio XII.erantz, Mendeurrenerantz eta Easoran joateko, eta Lizarra kalerantz jiratuko du (geldialdia behin-behineko zutoinean), eta gero ohiko ibilbideari ekingo dio.

Jesuitetako geltokia, Mariaren Bihotzekoa, Kursaaalekoa eta Boulevardekoa kenduko dira, eta **Jaialain, Galtzada Nagusian eta Colón pasealekuan** geldialdiak egingo dira. Urbieta 6ko geltokia eta Larramendikoa ere kenduko dira, eta horiek **Iparreko Geltokira eta Lizarra kaleko 2ra** lekualdatuko dira.

- Intxaurrondo alderantz: La Cumbretik jaitsi egingo da, Lazkanotik eta Izostegitik, eta Pio XII.era irtengo da, Gernikako Arbolara eta Foruetara (17 linearen geldialdiak). Gero, Santa Katalina Zubira iritsiko da eta ohiko ibilbidea egiten jarraituko du. Marianistetako geltokia, Easo 19koa eta Askatasunaren Hiribidea 15koa kenduko dira, eta **Foru pasealekura eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

•33.LARRATXO-INTXAURRONDO-ANTIGUO:

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

- Antiguo alderantz: Colónetik aurrera, Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik, eta Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabarretik (geldialdia behin-behineko postean) jarraituko du, eta aurrera egingo du Pio XII.erantz irteteko, eta gero Izostegitik gora eginez eta Pio Barojatik behera eginez Antiguorantz egingo du, eta gero ohiko ibilbidea egingo

du. Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia, Urbieta 20koa eta Zubieta-San Martinek 21koa kenduko dira, eta **Colónera eta Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

- Larratxo alderantz: Zumalakarregitik aurrera, Pio Barojatik jarraituko du, eta Izostegitik, eta Pio XII.etik irtengo da Gernikako Arbolara eta Foruetara (17 linearen geldialdiak). Santa Katalina Zubira helduko da eta gero ohiko ibilbidea egingo du. Zubieta Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidea 21ekoa eta Askatasunaren Hiribidea 3koa kenduko dira. **Foru pasealekura eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

• 36.SAN ROKE-ALDAKONEA:

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera

- San Roke-Matia alderantz: Iztuetatik aurrera, Frantzia pasealekutik jarraituko du, Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabarretik eta aurrera egingo du Pio XII.erantz irteteko, Antso Jakitunerantz, Mendeurrenerantz eta Easorantz, eta gero Lizarra kalerantz jiratuko du. Ondoren, ohiko ibilbidea egiteari ekingo dio, Arroka Plazaren geltokitik. Euskadi Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidea 20koa, Urbieta 12koa eta Urbieta 38koa kenduko dira, eta **Iparreko Geltokira eta Arroka Plazara** lekualdatuko dira.

- Aldakonea alderantz: La Cumbren buelta emango du eta Lazkanotik eta Izostegitik Pio XII.era iritsiko da, eta Gernikako Arbolara eta Foruetara. Ez da Etxaidetik sartuko eta Santa Katalina Zubira irtengo da, gero ohiko ibilbidea egiten jarraitzeko. San Roke 65eko geltokia, San Roke 58koa, San Roke 13koa, San Roke 7koa, Easo Plazakoa, eta Askatasunaren Hiribidea 3koa kenduko dira, **eta Lazkano 3ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

• 37.RODIL-ZORROAGA:

9:30etik 10:10era eta 11:15etik 13:00etara gutxi gorabehera:

-Zorroaga alderantz: Lapurdi Plazatik aurrera, Colón pasealekutik jarraituko du Gipuzkoa Plazan duen geltokira irteteko. Gero, ohiko ibilbidea egiten jarraituko du. Kursaaletoko geltokia kenduko da, eta **Colón pasealekura** lekualdatuko da.

10:10etik 11:15era gutxi gorabehera:

-Zorroaga alderantz: ezin izango du Rodilera sartu. Fernando Sasiain geltokira iristerakoan noranzkoa aldatu egingo du eta Ategorrieta 65 (Jubilatuak) ibilbidea hasiko du.

Rodileko geltoki guztiak, Mariaren Bihotzeko geltokia, Kursaaletokoa, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidea 7koa kenduko dira, eta Ategorrieta 65 (Jubilatuak) Galtzada Nagusian, Colón pasealekuan eta Iparreko Geltokian egingo dira geldialdiak.

-Gros alderantz: Foru pasealekutik ez da Etxaide kalerantz sartuko; Santa Katalina zubira jarraituko du, eta behin-behineko zutoinean geldialdia egingo du. Puntu horretatik aurrera ohiko ibilbideari ekingo dio berriro. **Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da**, eta Santa Katalina zubira lekualdatuko da.

•41.GROS-EGIA-MARTUTENE:**10:10etik 11:15era**

Mirakruz kaletik joango da, eta 29 linearen geldialdiak egingo ditu. Ibilbide bukaerako geldialdia **Jaiain** egingo du (gasolindegi zaharrean). Iparragirreko geltokia, Zurriolakoa, Groseko Anbulatoriokoa eta Nafarroa Hiribidea 34koa kenduko dira, eta **Mirakruz kalean** egingo ditu geldialdiak (29 linearen geldialdiak).

•42.ALDAPA-EGIA:**10:10etik 11:15era** gutxi gorabehera

Colón pasealekutik joango da, Frantzia pasealekutik eta M^a Cristina Zubitik, eta ibilbide bukaerako geldialdia **Santa Katalina Zubian** egingo du. Okendo 18ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidea 7koa kenduko dira.

•45.ESTACIONES RENFE-BUS-ANTIGUO-AIETE:**10:10etik 11:15era** gutxi gorabehera

- Antiguo alderantz: F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabarretik (geldialdia behin-behineko postean) jarraituko du, eta aurrera egingo du Pio XII.eko geltokian irteteko, eta gero Izostegitik gora eginez eta Pio Barojatik behera eginez Antiguorantz egingo du, eta gero ohiko ibilbidea egingo du. Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia, Urbieta 20koa eta Zubieta-San Martinekoa kenduko dira, eta **Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

- Geltokietarantz: Zumalakarregitik aurrera, Pio Barojatik jarraituko du, eta Izostegitik, eta Pio XII.etik Gernikako Arbolara eta Foruetara (17 linearen geldialdiak) irtengo da, eta gero ohiko ibilbidea egingo du Geltokietarantz. Ondarretako geltokia, Zubieta Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidea 31koa kenduko dira. **Foruetara** eramango dira.

•46.SAN ANTONIO-MORLANS:**10:10etik 11:15era** gutxi gorabehera

- Amara alderantz, Ategorrieta aurrera, Ategorrieta Hiribidetik, Galtzada Nagusitik, Colón pasealekutik, Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik eta Lehendakari Agirre Zubitik, Zuaznabarretik jarraituko du, eta aurrera egingo du zuzenean Pio XII.eko geltokian irteteko, eta gero ohiko ibilbidea egiten jarraituko du. Jesuitetako geltokia, Mariaren Bihotzekoa, Askatasunaren Hiribidea 20koa, Urbieta 12koa, Urbieta 38koa eta Mendeurrenekoa kenduko dira, eta **Ategorrietako Hiribidea 41era, Galtzada Nagusira, Iparreko Geltokira eta Pio XII.era** lekualdatuko dira.

- San Antonio alderantz: Foruetatik doanean ez da Etxaiderantz desbideratuko eta Santa Katalina Zubirantz jarraituko du (behin-behineko zutoina), eta gero ohiko ibilbidea egiten jarraituko du. Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da, eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.



• **TB6 TAXIBÚS ULIA:**

Era berean, **10:10etik 11:10era** gutxi gorabehera aldaketak egingo dira TB6 Ulia Taxibusa zerbitzuan. Mariaren Bihotza eta Groseko Anbulatorioa geltokiak kendu egingo dira.

Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 900 840 146 telefono zenbakian.

